

BEKATUA

Goiatz Labandibar



n a r r a t i b a ●

ere in

BEKATUA

n a r r a t i b a • 147

ere in

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

Liburu honek Ramiro Pinilla eleberritzailearen saria 2021 jaso zuen BIHARAMUNA izenburupean.



1. argitalpena: 2023ko irailean

Maketazioa:

Erein

Azaleko irudia:

Iñaki Zapirain Retegi

© Goiatz Labandibar

© EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-815-7

L.G.: D 827-2023

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107 - 20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eu

www.erein.eu



Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Goiatz Labandibar

BEKATUA

| *Ramiro Pinilla eleberrirako saria 2021* |



Uxo, hau zuretzat

Garazi, ospa.

Begiak irekitzera ere ez da ausartu. Badaki ez dagoela egon behar duen tokian. Hura ez da bere gela. Hura ez da bere ohea. Ondokoa ez da bere Asier. Ikaskide ohiekin parrandara atera baino, hobe zuen bibliotekatik hiruzpalau liburu hartu eta etxean biziraun.

Ospa. Altxa ohetik, bilatu kuleroak eta titi-zorroak, jantzi eta alde egin ohe horretatik, gela horretatik, etxe horretatik. Hartu autobusa. Ez. Hartu taxia; hobe. Azkarrago helduko zara etxera. Eta pentsatu aitzakia bat. Aitzakia on bat. Asierrek sinetsiko duen aitzakia bat. Oso aitzakia on bat. Zuk zerorrek ere sinetsiko duzuna.

Euria egiten omen du pertsona onak hiltzen direnean. Amak hala esaten du. Herrialde bakoitzak bere burua zuri-tzeko eta onenak direla sinesteko erabiltzen dituen triki-mailu horietako bat baino ez da hori esatea Euskal Herrian. Garazi letania hori entzuten hazi da. Letania horregatik egin zuen negar etxeko txakurra hil zenean, bera hamar urteko haurra zela. Txakurra hil eta lauzpabost egunera hasi zen

negarrez Garazi. Amak galdetu zion zer gertatzen zitzaion. «Ez du euririk egin. Beltxa ez zen txintxo...». Amak baietz esan zion: «Zure begietatik isuritako malakoak izan dira euria». Gizateriak bere burua engainatzeko erabiltzen dituen trikimailuak. Eta orain, Garazi ere ataka horretan dago: bere burua engainatzeko trikimailuak sortzen.

Mattin. Hala izena duela esan zion. Guraso modernoak garai bateko baserritarren izenak jartzen hasi diren belau-naldikoa dela adierazten du Mattin izenak. Garaziren gelakideek Aitor, Iker, Ander, Mikel edo Asier izena zuten. Asier. Axi. Eta neskek, bera bezala. Garazi. Edo Eider, Mainer, Ainhoa, Leire, Irati, Nagore. Urte batzuk geroago bueltatu ziren Mattin, Nikolax, Peio, Txomin eta Peru. Haiekin batera Maddi, Kattalin, Maixabel eta Xixili. Bere gelakideen aitona-amonen izenak. Bere aitona-amonen izenak. Akordatzen da nerabe zela auzoko batzuek alabari Kattalin izena jarri ziotenean aitona Inaxio nola asaldatu zen: «Kattalin! Gure arreba zaharrenak bezala!». Fin portatu zen, hala ere, aitona. Haren kartetarako bikotea osatzen zuenak aitortu baitzuen Kattalin entzunda haien baserriko behia zetorkiola gogora; tokaioak ziren.

Eta oraingoek? Nola dute izena oraingo haurrek? Jare, Arai, Arhane eta Laia. Edo Unax, Xabat, Ekhi eta Axel. Garaziri gustatzen zaizkio aldiari behin publikatzen diren klik errazaren bila dabilzan izenburu horiek: «Euskadin 2021ean gehien jarritako hamar izenak». Azkeneko zerrenda buruz ikasi zuen. Markel. Jon. Julen. Ibai. Aimar. Martin. Ander. Oihan. Oier. Danel. Badaki alferrik tokia kentzen ari zaiola

bere garuneko gordailuan ezertako balio ez duen informazio hori. Ane. Laia. June. Nahia. Irati. Izaro. Nora. Malen. Maddi. Noa. Informazio hori ezabatu beharko lukeela uste du, baina, nahi gabe, hortxe geratu zaio. Datorren urteko zerrrenda argitaratzen dutenean eta ikasten duenean ahaztuko ditu aurtengoak. Eta beste urtebetez, alferreko informazioarekin xahutuko du garunaren gordailua.

Batzuetan gehiegi hitz egiten duela pentsatzen du Garazik. Marrubizko tekila txupitoari baietz esan zionean bertan damutu zen. Bazekien egoerak ez zuela taxuzko bukaerarik izango. Badaki txupitoek ez diotela mesederik egiten. Eta bezperan ere bazekien. Baina harrotuta zebilen. Ume-moko hark ez zion eskaini matxakatu bat (vodka + kas limoia, barran hiru golpe ematerakoan erdia isuri ondoren edaten dena), edo butano bat (patxarana + kas laranja; gutxienez nahasketa euskaldun bat dirudiena) edo Jagermeister bat (barruak irakiten jartzen dituen eta eztarria erretzen). Ez. Gaztetxoek edaten duten gauza nazkagarri hura eskaini zion: marrubizko tekila. Engainu hutsa. Hasieran, goxo sartzen da, umetako bihotz formako goxoki horietako bat ekartzen baitu gogora, baina bukaeran arrasto garratza uzten du. Bihotzere. Goitika egiteko gogoa.

Marrubizko tekila txupito bat eskaini zion Mattinek, eta Garazik baietz esan zion. Eta gero, kortesiaz edo, berak beste bat edatera gonbidatu zuen. Marrubizko tekila, hura ere –gazteagoen erritmoa segitzeko kapaza zela erakutsi nahian edo–. Oka egiteko gogoa etorri zitzaion kolpetik eta komunera joan behar zuela esan zion Mattini. Eta mutila

atzetik joan zitzaion. Garaziri burua kontu zion, ontzian barrenak husten zituen bitartean. Duintasunik gabea sentitu zen. Ume moko bat, hogeita hamarrak pasatutako emakume bat artatzen. Baina begira zer diren gauzak, egun denak ez dira berdinak, eta parrandan, batzuetan, kalterako izaten da esperientzia. Adinak ez baitu barkatzen. Eta hogeit urte dituzunean gorputzak askoz hobeto asimilatzen du alkohola. Tekila arrosa, zer esanik ez. Gero, komeriak.

Garazik badaki batzuetan gehiegi hitz egiten duela. Zoriontsu sentitzen denetan gertatzen zaio hori, batik bat. Norbaitek *play* botoia sakatuko balio bezala izaten da, eta ezin izaten du isildu. Eta, bezperan, ez daki oso ongi nola Mattinekin elkartu zenean, zoriontsu sentitzen zen. Alkoholaren eragina izan zitekeen. Edo atrakzio erotikoak azkartutako adrenalina.

Mutilak Filosofia ikasten ari zela esan zionean, ezin izan zion eutsi udan Grezian egon zela kontatzeari. Ez zen batere bidaia filosofiko-historiko-klasikoa izan, egia aitortu behar bazuen, bidaiak historia klasikoarekin izan zuen lotura bakarra Atenasko akropolira egindako bisita izan baitzen —eta han *geufi* bat atera posturo hutserako, bestela ez baitzara Atenasen izan—, baina herrialde heleniarrera joan aurretik irakurri zituen pare bat liburuk lagunduta, harrotzeko baimena eman zion bere buruari, eta Filosofia ikasleari kontatu zion Sokrates preso egon zen tokian izan zela, eta bi mila eta bostehun urte atzera eginda, Sokratesekin enpatia sentitu zuela, eta bera ere preso sentitu zela. Eta gero, oso ongi ez daki nola, baina derrepentean akordura etorri zitzaizkion

batxilergoko bigarren mailan Filosofiako klaseetan emandako Platon eta Marxen teoria nagusiak, eta haiek oroitzen hasi zen, auriga zuria gora, auriga beltza behera, sintesia-antitesia-tesia eta halakoak. «Filosofia ikastekotan egon nintzen, baina azkenean Zuzenbidea ikastea erabaki nuen». Gezur hori ere ez daki nondik atera zuen, behin ere ez zuelako buruan izan Filosofian lizentzia ateratzea, baina tira, bere barruan zerbaitek mutil hura konkistatu nahi zuen, eta horretarako, edozein estrategia zen balekoa. Eta ez daki gezur hark funtzionatu zuen edo ez, baina kontua da haren ohean bukatu duela.

Garazik ez zuen Zuzenbidea ikasi. Egia berdaderoa esan izan balu, Zuzenbidea ikasten hasi zela esan beharko zion Mattini. Baina unibertsitateko hirugarren urtean, matrikula egitera joan zenean, ez zuen berritu. Oraindik lehenengo mailako ikasgaiak zeuzkan gainditzeko. Hura ez zela fundamentua erabaki zuen.

Unibertsitatea utzi, eta administrazioko goi mailako heziketa ziklo batean eman zuen izena. Gauza bat, hala ere, zor dio EHUri. Urtean behin Zuzenbideko bi urte haietan ikaskide izan zituenekin elkartzen da bazkaltzeko. Bezperan, urteroko zita horixe izan zen Donostian bazkaldu eta batere espero gabe eguna luzatu, luzatu eta luzatzeko aitzakia. EHUri eta bukatu ez zuen karrera bateko ikaskideei zor die orain dagoen ohean bukatzeko adina horditu izana.

Eskerrik asko.

Gaitzerdi. Garazik konta diezaioke Mattini berak ere DBH egin zuela. Felipe González eskerrak eman behar dizkio 1994-1995 ikasturtean Espainiako hezkuntza sistema eraldatzea erabaki zuelako. 1983an jaiotakoak izan ziren laborategiko akuriak. Garazi pare bat urte lehenago jaio izan balitz, LOGSE garaikoa zatekeen eta BBB eta COUtik pasatua. Eta prehistorikoa sentituko litzateke etzanda dagoen ohe horretan.

Garunaren bide sekretuak atzemanekin dira batzuetan. Garazik ez daki nola harilkatu zituen hain fin bezperako liggia, filosofia eta azkeneko udan Asierrekin Greziara egin zuen bidaia. Baina, derrepentean, Edipo azaldu zaio, amarekin ezkondu zen Greziako mitologiako pertsonaia hura. Baina Garaziri, bost axola Edipo. Inporta zaiona da bera, ia, Mattinen ama izan daitekeela.

Terribleak dira Greziako mitologiako elezaharrak, e. Kaka zaharra baino ez zen Grezian emakume izatea, are erregina bazinen ere. Eskubiderik gabeko ez-herritar bat baino ez. Demonioa. Azkeneko aldia izango da bidaia baten aurretik antzinako historiarekin lotutako hainbeste liburu irakurtzen dituen Garazik. Zin dagi.

Ogi egin berriaren eta kafearen usainak erotzen dute Garazi. Eta haragi guri-guria da Mattinena. Ogi labetik atera berria. Usain gozo horrekin. Garazik gorputzean gero eta arrasto gehiago ditu, adinaren markak. Zelulitisa, titi erortzen hasiak, kopetako zimurrak, oraindik besteen artean disimulatu daitezkeen lau ile zuri, elastikotasunaren galera, geroz eta maisago kargatzen diren gerrialdeak, gainetik kentzea geroz eta gehiago kostatzen diren udako kiloak.

Asierrek ere bai, baditu adinaren arrastoak gorputzean. Hari ere hasi zaizkio bizarreko ileak zuritzen, tripa ateratzen, belauneko minak eta nekeak. Gizonezkoei maiz asko pasatzen zaien translazio hori gertatzen ari zaio: buruan gutxitzen diren ileak gorputzaren beste zenbait ataletan ari zaizkio ugaritzen, bizkarrean, sabelean, bularrean.

Garazi ez da oso ongi akordatzeko nola zen bere gorputza guri-guria zenean, Mattinenaren tankerakoa zenean. Imajinatzen du bera ere ogi egin berria bezalakoa izango zela, usain gozoarekin. Eta pentsatzen du, pena dela kontzientzia falta hori izatea ogi zarenean.

Gaztetasuna eta zahartasuna zer diren, konpai... *Zahar-gazten arteko, hau da parabola...* Laboaren doinua etorri zaio burura Garaziri, nahiz eta Willis Drummond bertsioaren zaleagoa den –originalak bertsiotze bidez hobetzea zaila bada ere, uste du kanta horrekin asmatu zutela; eta *Txinaurriak* diskoko lehenengo CD berean dagoen *Nao es tu, falcaldade de sentir* fadoarekin, ere bai.

Zergatik aukeratu du markak dauzkan gorputz bat dastatzea Mattinek, aukeran izanda oraindik orbangabeak diren gorputzak? Zergatik Garazi?

Oraindik marrubizko tekila txupito ondoko zaporea dator-kio. Pasatu dira ordu batzuk, baina hor dirau gozotik mikatzerara doan zapora horrek.

Zertan jolastuz mozkozten dira Mattin eta bere pisuki-deak? Garazi ziur dago ez dakitela Puppy-an jolasten. Garazi

eta bere lagunak batzuetan Puppy-an jolasten ziren, Leirek uda bat Eskozian ingelesa ikasten pasatu eta horditzeko jolas hura inportatu ondoren. Kartak banatzen zituzten parte-hartzaileen artean eta hiruna puntu. Batekoak ziren Puppyak. Inork Puppyrik ba ote zuen galdetzen zen lehenik –Leire baldin bazegoen, beti berak–. Batekoa zuenak gainerakoek artean nahi zuenari galdetzeko aukera irabazten zuen. Beti galdera bera. «Zein koloretakoa da nire Puppya?». Inkestatuak asmatzen ez bazuen, Puppyaren jabeari oparitu behar zion bere hiru puntuetako bat. Puppyaren jabeak nahi adina aldiz galdetu zezakeen zein koloretakoa zen bere txakurtxoa, helburua besteak punturik gabe uztea baitzen. Baina norbaitek erregea bazuen, hura erakutsi eta jolasa eteten zen: Errege ahalguztidunak Puppyaren jabearen puntu bat osten zuen. Behin Puppyei buruz galdetu eta erregeak azaleratu zirenean, parte-hartzaile guztiek beren kartak erakusten zituzten. Eta kartarik txikiena zuenak puntu bat utzi behar izaten zuen mahaiaren erdian. Hiru puntuak galtzen zirenean, gainerakoek «agur!» esaten zioten galtzailari eta jolasetik kanpo geratzen zen. Eta hemen hasten zen, akaso, zatirik entretenigarriena, parte-hartzaile horrek berriz jolasera bueltatu ahal izateko besteen atentzioa lortu behar baitzuen, nahi zuen estrategia baliatuz. Senperrenak eta bi egin izan zituzten horretarako. Mangerarekin gainerakoak ureztatzea barne. Norbaitek kasu egitea lortzen bazen, horren puntu bat jaso eta berriz jolasera sartzen zen aurrez kanporatua. Jolasaren irabazlea puntu gehien pilatu zituena eta kaleratutakoei kasu zipitzik ez egiteko gaitasuna zuena

izaten zen. Puntu bakoitza galtzean, txirrisklas trago bat edaten zen.

Nola mozkortzen dira orain gazteak? Duela ez asko, egunkarian irakurri zuen Garazik *malgukia* izeneko sexu jolasa zegoela modan Hego Amerikako eta Espainiako gaztetxoan. Espainiako egunkari bat zen eskandalizaturik idazten zuena sexologo, psikologo, irakasle eta abarri iritzi kualifikatua eskatuz.

Mutil nerabeak zirkuluan edo ilaran jartzen dira, galtzak jaitsita, buztanak tente, eta neskak, txandaka mutilen gainean jarri. Jokoaren arabera, hainbeste segundokoa izan behar du sarketa bakoitzak, eta gero, txanda-pasa egiten dute. Azkena eiakulatzen duen mutikoa da jokoaren irabazlea. Sexologo eta psikologo kezkatuek jokoaren hankarik eta bururik eza salatzen zuten, eta hezkuntza sexual eskasak, babes neurrien faltak eta alkohola tartean sartzeak arriskuak gutxiago balortzea nola dakartzan. Garazik harriturik irakurri zuen albistea. Eta burura lehenengo etorri zitzaiona hausnarketa bakarra izan zen: «Beti mutilak irabazle». Eta gero... «Zeinen urrun geratzen diren gure jolas tontoak».

Eta baita ere terribleak direla mozkortzeko jolasak. Batez ere emakumea bazara. Kaka zaharra baino ez da gaur, hemen eta orain emakume izatea, are norbere etxeko printzesa izanagatik ere. Jostailu sexual bat baino ez. Demonioa.

Garaziren burua bezperako lagunengana itzuli da. Eskertu behar du unibertsitateko lagunekin zegoela gertatu izana

mutilaren afera hori. Bere kuadrillakoekin egon izan balitz –demagunka hasita, urteak baitira kuadrillakoekin halako planik egiten ez duela; herriko jaien hasierako afaria ere desagertua da beren agendetatik haurrak kausa, eta azkeneko egunean bazkaria antolatzen hasi dira–, segituan hasiko zitzaizkion kontzientzia lanak egiten: zertan ari zara? Eta Asier? Eta Asier? Eta Asier? Asierrengan Garazirengan baino gehiago pentsatuko balute bezala.

Bezperan, berriz, Egiako kontzertu areto hartara sartu zirenean, berarekin zeuden hiru ikaskideetatik bakar batek ere ez zuen Asier gogora ekarri Mattin eta beste bi lagun hurbildu zitzaizkienean, ez zirkulua bateratu zutenean, ez txupitoak edaten hasi zirenean ezta tonteoak iraun zuen bitarte guztian ere. Ez zuten aipatu Garaziren harreman monogamoia. Utzi egin zioten egiten. Nahi zuena egiten. Zeren, esnatu berritan ezin ulertuaren plantak egiten ahalegintzen ari bada ere, Garazik jakin badaki mutil honekin oheratu bada, nahi izan duelako izan dela.

Kuadrillakoak. Orain ezin ditu burutik kendu. Eider, Ainhoa, Leire, Irati, Maider... Nola begiratuko diote hemezortzi urteko mutil batekin oheratu dela kontatzen dienean? Zeren, bai, Garaziren barru-barruko izakitxo batek harrotasun puntu batekin kontaktu nahi baitu bezperako liguearena. Pixka bat puztuta. Harro, 36 urterekin 19 urtekoak limurtzeko gaitasuna duelako. Baina ongi daki kuadrillakoek ez dutela partekatuko bere harrotasuna. Ez diotela aitortuko sentitzen duten inbidia. Ainhoa imajinatu du berari begira. Ez lioke begirada gaitzeslearekin begiratuko. Ez. Bihurrikeria

arin bat egin duen ume txiki bati begiratzen zaion gisara begiratzen dio beti, Garazik nerabesarotik eboluzionatu ez balu bezala. Garazi ume sentiarazten du. Ainhoaren alaba Jare baino umeago. Badaki begirada horrekin begiratuko liokeela, «ez gehiago horrelakorik egin, hori kaka da, hori gaizki dago» esango liokeela, gehienez, irribarre goxo batekin. Goxoa bezain gaitzesgarria.

Garazik badaki kuadrillakoek, sekula aitortu ez badiote ere, ez dutela ulertzen. Ez diote behin ere galdetu ea umerik ekarri behar ote duen mundu honetara, ez dute inoiz presio sozial hori berbalizatu. Boz gora, Garaziren kuadrillako amaxo modernoek amatasuna norberaren hautua dela defendatzen dute, errespetatu behar dela haurrak izatea edo ez izatea. Baina, ahopean, denek segitu dute patroï bera, edo antzekoa behintzat: ezkondu –ospakizunarekin edo gabe–, eta behin munduari jakinarazi ondoren metodo antikonzeptiboen erabilera etetera zihoazela, haurdun geratu.

Nagore eta biak ziren kuadrillan haurrik ez zutenak, baina duela hiruzpalau hilabete pasatu zen Nagore beste kategoria hartara: amen kategoriara. Garazik ez du harekin sekula harreman estuegirik izan kuadrillakideak izanagatik, eta ez da inoiz ausartu galdetzera, baina dago ama izatea erabaki duela ez desplazatua sentitzeko. Zeren, bai, DBH 2. mailan Gizarte Zientzietan erakusten dituzten estamentuen gisako bat baita amatasuna/ez-amatasuna. Garaziren kuadrillan beti izango da lehentasunezkoa ama den baten iritzia edo kalendariora, eta ez ama ez denarena. Kuadrillako bazkari bat antolaterakoan, ama batek ezin duela joan esango balu –joateko

gogorik ere ez duela aitortu beharrean—, eguna aldatuko litzateke. Garazik esango balu egun horretan ezin duela eta ea beste egun batean elkartu daitezkeen, bazkaria egin egingo litzateke. Maiz, arrotza sentitzen da bere-berea izan beharko lukeen espazio horretan.

Baina kontua da momentu honetan Mattinen ikasle pisuan dagoela Garazi. Lau gaztetxo nafarren ikasle pisu batean. Amatxo maitea, ikasle zenean ere ez zuen bukatu ostegunik ikasle pisu batean. Zertan dabil?

Erasmus belaunaldia omen da Garazirena. Baina bera ez zen joan Erasmusen. Eta arantza hori geratu zaio barrena urratzen. Nabaritu izan du nola luzatzen zaion zauri zartatu bat uterotik insularaino. Egin gabe utzitakoek eragindako damuaren kartografia fisiologikoa horixe baita: uterotik insula bitarteko gorputz atal guztiak zeharkatzen ditu. Gero, bizitza erdia pasatu du Erasmus atzeratu bat berrasmatu nahian. Horregatik joan izan da hara eta hona boluntario gisa. Badaki ez dela ez oso etiko eta ez oso humanitario hori aitortzea, baina berak bere buruari aitortzen dio Etiopiako umezurztegitan laguntzen pasatutako denboraldiek badutela arantza horretatik ere.

Desiderius Erasmus van Rotterdam. Teologo eta humanista hark hezkuntza garapenaren oinarri zela defendatzen zuen sutsuki. Abenturazalea zenez, ez omen zekien inon lekua hartzen, etengabe toki berrietara joateko grinak mugitzen omen zuen. Akordatzen da Garazi bezperan Mattinekin horri buruz hitz egin zuela. *Horri* buruz, ez *hari* buruz. Mattinek esan zion bazuela beka eskatzeko asmoa eta urtebete

atzerrian ikastekoa. Baina ez zuela oraindik erabaki nora joan nahi zuen. Hiru aukera omen ditu buruan. Grezia da bat. Filosofiaren sehaska. Baina, unibertsitatean hirutik bitan greban omen daude. Eta gainera... ia denari buruz hausnartu duten filosofoz betetako herrialde batean, zer berriri buruz pentsatu daiteke? Bigarren aukera Paris da. Sorbona. Sartre, Beauvoir, 68ko Maiatza eta ipuin horiek guztiak. Harritu zuen, baina Ismael Serranoren abesti puska bat kantatu zion belarrira Garaziri bezperan. «*Que tras tanta barricada y tras tanto puño en alto, al final de la partida no pudimos hacer nada, y bajo los adoquines no había arena de playa*». Ohean etzanda gogoratzen duen bitartean, are harrigarriago egiten zaio Mattinek Serranoren abestia ezagutzea. Garaziren adinkide balitz bezala. Frantses itxuroso batean *sous les pavés, la plage!* dotore eta entusiasmatu bat esateko gai ere izan zen (Garaziren erretorika baino hobea zen ordu horretan Mattinena). Eta, aurreko belaunaldiek deskubritu bazuten bosgarren *arrondissementaren* baldosapean ez zegoela hondartzarik, ez du uste bera izango denik asfaltoan harea topatuko duena. Hirugarren eta azkeneko aukera MIT da. Massachusetts. Ameriketako Estatu Batuak. Eta erruduna, Noam Chomsky. Ziurrenik, XXI. mendeko filosoforik ezagunena. Edo, kasik, XXI. mendeko filosofo aitortu eta ezagutu bakarra. Baina AEBetako unibertsitateetan sartzeko ingeles maila altua eskatzen dute, eta Mattinek ez daki lortuko duen exijitzen duten Proficiency titulua.